

2. GAIKO IRAKURGAIA: LAKARRA 1997

Artikulu honetan bigarren gaien landutako CORPUSAREN IZAERA eta PERIODIZAZIOAz ari da Lakarra.

2. FILOLOGIATIK HIZKUNTZAREN HISTORiarantz

2.1 Testukritika eta hizkuntzaren historiaren arteko harremanez

-Hizkuntzalaritza historikoaren gunea lehen eta orain: dataren analisi eta ulermena.

-Testu kodaketako arazoak linguistikoak eta filologikoak dira: data eta dialektoa, transmisioaren historia, egilea eta irakurlegoa...

-Testukritikak hizkuntzaren historiarako duen balioa editoreak duen ezinbesteko eginbeharretik dator: huts bat gertatzean huts hori nola eman den azaldu behar da, arrazoiak emanez.

-Baina ZAILTASUNAK: Ez da erraza garai bakoitzari dagokion lekukotasuna bereiztea. Lekukotasun bakarrekin ere testuaren hutsa eta hizkera ezaugarri jatorren artean bereiztea ez da beti erraza.

Askotan lekukotasun bakarrekoen morfosintaxian hapaxen arazoa: hutsak dira ala lehenagoko arkaismoen arrastoak?

-Edizio baten kalitatea ez da soilik neurtzen lekukotasunen hutsak zuzentzeko egindako proposamenez, baizik hustzat hasiera batean eman zitezkeen irakurketen azalpenaz.

2.2 Datu gehiketa eta ulermen hobekuntza

-Schmid-ek (1992) bereizi: material gehiketa eta material horren ulermenaren hobekuntza.

-Material gehiketa: IE H.en azterketan H soilen azterketatik abiatu: aldatzen dituzten lekukotasunen aurkikuntzak > talde soilenak aldatzen dituztenak > familia osoenak aldatzen dituztenak.

-Ulermenaren hobekuntza: Linguistika historikoa ulermen diziplina da.

Grassmanen, Vernereren eta Brugmannen legeak edota Saussureren IE bokalismoaren azterketa aipatzen ditu adibide estandar gisa.

-Filologia hasiera besterik ez da: ez dira aldaketak eurak ikusten, baizik aldaketen ondorioak; eta aldaketak dira azaldu behar direnak (Meillet). Linguistika historikoaren egitekoa datu eskas eta ulergaitzak teoria batez batu, sailkatu eta azaltzea. Historialariak berak hautatzen ditu interesgarri iruditzen zaizkion gertakari eta azalbideak.

-Hainbat iturri ditu hizkuntzalariak, zeren lekukotasun denek ez dute garrantzia eta izaera berbera:

1. Kanpoko iturriak: Ikerketa historiko, kultural, literario eta arkeologikoetatik ateratakoak + hizkuntzalaritza teorikoak edota hizkera modernoaren azterketak egindako aurrerapenetatik ateratakoak.

2. Zuzeneko iturriak: Testu idatziak direnean informazio iturri nagusia.

-Iturriok ikertzailearentzat dituzten arazoak bi parametroren arabera:

1. Kronologikoak: ez dira berberak hasierako garaietakoak edo beranduagoak. Hasierako garaietan ulermen zailtasun larriagoak.

2. Hizkuntz analisiaren mailakoak: fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa.

2.3 Zenbait testu iturri bilakatzeko arazoez

-Hizkuntzaren azterketa historikoaren lehen muga eskura daitezkeen datu kopurutik eta horien izaeratik dator.

-Guganaino iritsi diren testuak ez dira ekoiztutako guztiak. Lekukotasun gabeko (edo gutxiko) garaiek berreraiketa eskatzen.

-Iritsi direnak ere higadura gradu diferentetan. Honek bere ulermena, kokapena eta datazioa zailtzen.

-Testuen izaerak hizkuntz azterketan badu zerikusirik: inprenta baino lehen eta gero testu mota guztiek ez dute izan irauteko aukera bera, eliz idazkiak literaturazkoak baino askoz gehiago dira (batez ere Euskal Herrian), eta oso gutxi eguneroko hizkeraren isla izan daitezkeenik. Baina horiek duten ordezeko balioa zehaztea ere hizkuntz historialariaren egitekoa.

-Hizkuntzaren historia gehienbat hizkuntza idatziaren historia. Hizkuntza idatzia lanabestzat erabiltzeak ondorio eta arriskuak ditu, idazkerak ez direlako beti zehatzak eta garbiak.

-Idazkerak konbentziozkoak eta akastunak direnez, estali egin dezakete, eta ondorioz, benetako ahoskeraren datuak zirrikitu ezberdinetatik bilatu behar. Honetan lagun dezakete ahoskera hobe islatzeko idazkeran aldaketaren bat proposatu duten idazleek: Garibai, Azkue, Axular, Oihenart...-en kasua.

-Testu idatzien azterketak eta idazkera sistemen berrikuntza linguistikoak neurtzeko baliabideak badaude. Baina hauek nekosoak dira, eta ezarri ezinezkoak ez badago segidako testurik. Orduan, batez ere hizkuntzen historiaurrerako, konparaketa erabili ohi da.

-Interpretazio metodoen ahuleziak delako garai batekoek beren hizkuntzaz edo idazkera sistemaz utzi dituzten berriak oso garrantzitsu bilaka ditzake.

-Beraz, **hizkuntzalariak ezinbestekoa du filologia**, eta hobe zenbat eta zehatzagoa.

2.4 Gramatika eta hiztegien lekukotasunez

-Lekukotasun hauek filologikoki azter eta neur daitezkeen aldaketen berri ematen digute. Beren garrantzia handia da: idazketa joerez jabetzeko, sailkapenerako, gramatikako zenbait aldaketarako, AHRako zenbait puntu zehazteko...

-Gramatikekin batera hiztegiak dira ikertzailearen iturri emankor. Izan ere, ematen duten hutsen tipologia zabala da. **Huts klasikoena liburu baten lehen edizioan ez den hitz bati edizio horren urtea eta ez soilik bigarren edota beranduago lehendabizikoz dakarrenarena jartzea.**

7. Hren HISTORIAREN ARAZO BEREZI BAT: PERIODIZAZIOA

-Euskararen hizkuntza historiako egiteko historiografiko nagusien artean dago.

-Frantsesaren edo ingelesaren historiak irakurtzen ditugunean bitxi gerta dakiguke:

a. jakintsuek nolako segurtasunez erabiltzen dituzten *ancien français, Middle English...* bezalako hitzak, guztietan beren **hizkuntzen bilakabidea hirutan** banatzen dutelarik; eta

b. zalantza handirik gabe (batez ere frantsesaren kasuan) erabakitzen noiz hasten eta amaitzen den garai horietariko bakoitza.

-Zein ote hizkuntzaren historia kronologikoki zatitzeko behar teoriko edo praktikoa?

-Edozein ikerketa historikotan garai historiko zenbait mugatu ohi, haien barnean ikergaiak batasun berezia izan dezan. Egia da beti aldatuaz dela sistema, baina bakarrik momentu batetik aurrera ikusi ohi dugu egoera kualitatiboki berria.

-Barne historia eta kanpoko historiaren arteko harremanetara garamatza. Eberenz-entzat (1991) kanpoko fenomenoaren eraginak hizkuntzaren barneko historiarako hizkuntzaren bilakabidearen lehen faseetan dira garaile.

-Nola lortu garai banaketa **ez dadin konbentzioko** sailkapen hutsa izan? Batetik, alderdi funtzionala eta alderdi kulturala biak kontutan izanik, baina ohartuaz oso kontuz noiz bataz eta noiz besteaz ari garen.

-Várvaro-ren (1972-73) lan klasikoan aurkeztu eta ondokoek bermatu bezala, iragan mendean sortu zenetik, hizkuntzaren historiak hizkuntzaren bilakabidea berreraiki ohi du, beti ere helburu zehatz batekin: gizarte baten izpiritu kolektiboaren azalpena. Hizkuntz historialariak Erromantizismoan oinarriak dituen **teleologia nazionalista** batez bete ohi du bere egitekoa.

-Baina Eberenz-ek beste ikuspegi bat: lurralde zabalago baten azterketa pankronikoa. Alabaina, egileak berak aitortzen du honek guztiak ez duela arazoa beste toki batera eraman baino egiten.

-Idealki hizkuntzaren historiak gizartearen aldaketak eta har erabili hizkuntz sistemaren edota sistemen aldaketak erkatzen ditu bien artean izan daitezkeen loturan antzemateko. Helburu hori, ordea, **gutxitan lortu ohi da**, bataren eta bestearen datu eskuragarriak urriak direlako, hasteko.

-Literatur obrak ezin dira inoiz ere garai baten hizkuntz lekukotasun bakartzat hartu. Eta literatur mugimenduen eta hizkuntza sistemaren eboluzioan nolabaiteko isomorfismoak aurkeztea oso arriskutsua da, eta orain arte ez du inork argudio sendoz frogatu.

-H.ren bizitza osoa ezin azter eta azal daitekeenez, **hautatu** beharra dago.

-Zenbait tradiziotan hizkuntzaz kanpoko 2 gai aipatu ohi dira: politikazko gorabeherak eta literatur hizkuntzakoak. Hizkuntzalari askok ukatu arren, **kanpoko historiak badu eragin** eta islarik **hizkuntzaren bilakabidean**, nahiz eta zenbait gertakari historikoren datak ematea aski ez izan hizkuntzaren bilakabidea mugatzeko.

-EUSKARAREN PERIODIZAZIOA ezin esan teoria landuegirik dugunik. Ez da harritzeko emaitza, zeren azken batean, euskarak historiarik duen eta aldatu den ere ukatu izan da, eta gehienbat historiaurreari dagozkion gaietan aritu izan dira ikerketa nagusiak.

Badira aspaldidanik zuzenean edo zeharka arazoa ukitzen duten usteak, “proposamen” argi ez badira ere.

1. IBAR (1935): Zatiketa hirukoitza egin zuen.

- A. Axular.
- B. Larramendi.
- C. Garaikideak.

Seguruena, baina hau Ibarren interpretazioa da, Axular aurreko garai bat ere suposatu beharko litzateke eta 2. eta 3. atalen artean ez litzateke 1. eta bi horien artean litzatekeen eten garbia. Izan ere, bere garaian aurkitzen zuen izurriaren erroak Ibarrek Larramendirengan bilatzen baitzituen.

2. Urteak igaro ziren eta ez da harritzekoa belaunaldi berriago baten literatur bozeramaileak (SARASOLA 1976) 1964ean jartzea Ibarren 3. garaia amaiara eta berri baten hasiera.

3. INTXAUSTI (1990):

- A. Historiaurretik Erromaren erorikoa arte.
- B. Erdi Aroa.
- C. Aro Modernoa (1545-1789)
- D. Aro Garaikidea (1789-1936)
- E. [Azken] 50 urte (1937-1987).

4. ZUAZO (1995):

- A. Euskararen Historiaurre luzea
- B. XVI-XVII. mendeak
- C. XVIII-XIX. mendeak
- D. 1875-1936
- E. Gerraondoko garaia

1-4 sailkapenak hizkuntzaren sistemaz landako arrazoieta oinarritzen dira. Ez dirudi hizkuntzaren barneko bilakabide historikoari egokitzen direnik.

5. LAKARRA:

- A. Akitaniera (I-III. mendeak)
- B. Erdi Aroko euskara (IX-XV. mendeak)
- C. Euskara arkaikoa (1600 arte)
- D. Euskara zahar eta klasikoa (1600-1745)
- E. Lehen euskara modernoa (1745-1890)
- F. Azken euskara modernoa (1891-1968)
- G. Euskara batua (1968-)

-A eta B hitz eraketarako bilakabideak (konposaketa eta eratorpeneko bokal erorketa eta neutralizazioak, kontsonante erorketa eta aldaketak) gertatzen direlako bereizi ohi da.

-Akitaniera: *Anderexo, Cisonbonis*

-EA: *anderauren, giza-*

-B eta C funtsean garai bera litzateke, B gehienbat tradizio sekundario hutsa izan arren.

-C eta D-ren artean bereizkuntzak egiteko zenbait ezaugarri:

-1600etik aurrera (salbuespenak salbuespen) ez da aoristorik, bokal sudurkariak ekialdetik kanpo ia desagertu dira, adizkietako kontrakzioak orduantxe hasten dira agertzen, sintetikoak ugari dira eta mendebaldean oraindik *-rean* ablatiboa eta *-ti* prosekutiboa bereizteaz gainera hastapenetan dago txistukari neutralizazioa.

-D eta E zein ondoko garaiak bereizteko, funtsean literatur hizkuntzaren bilakabideari lotzen da Lakarra: lexiko zainduagoa, eratorpenaren ugalketa, maila jasoagoa eta sintaxi periodo zabalagoak Hegoaldean.

-1891 F-ren hasieratzat: 1884an hasten den *Eskualduna* eta 1891n agertzen den *Euskal Izkindea* esanguratsuak iruditzen zaizkio.

-G-rako 1968 baino lehen ere aurki daiteke hizkera estandarraren zantzurik, baina Arantzazuko Bilerak ematen dion onspena esanguratsua iruditzen zaio gertatu zen ondoko emaitzetarako.